

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juana Zugasti Bilbao

*Eibar, Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



1923an jaioetako. 9 urterekin, Aldatzera joan zen ikastera. 1948an, 24 urterekin, moja sartu eta hasiera batean Frantziara joan zen, Kongregaziora. Bueltatu zenean, lehenengo Basauri eta gero Igozera bidali zuten klaseak ematera. Eibarren 7 urte egin bazituen ere, azkenik Igozera itzuli zen.

Zintak

AB-146

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-11-05
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

AB-147

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-11-05
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

Pasarteak

1. Batxillergo ikasketak Aldatze ikastetxean

- **Erref:** AB-146/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:01:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Aldatzeko Ikastetxean frantsesa, klase partikular bezala ematen zuten. Fraileetan berriz, mutil guztientzat izaten zen. Aldatzen, Bachiller Universitario ematen zen. Frankoren garaian, Batxiler titulua zutenek ikasgai berri batzuk eman eta Magisterioko titulua lortzen zuten.</p>

2. Aldatzeko mojak gerra garaian Elorriora ihesi

- **Erref:** AB-146/004
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:03:31. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra garaian Aldatzeko mojak Elorriora joan ziren. Eibarren moja bat bakarrik gelditu zen, Sor Matilde. Nagusiena zen eta etxea zaintzen gelditu zen. Aldatzeko jauregia koartel bihurtu zuten. Frentea Eibarren egon zen denboran, Kalamuan zeuden soldaduak (errepublikarrak) Aldatzera jaisten ziren. Sor Matildek kontatutako anekdota pare bat gogora ekartzen ditu. Aldatzen egon ziren batailoiak.</p>

3. Hezkuntza Aldatze Ikastetxean

- **Erref:** AB-146/006
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Hezkuntza Errepublika garaian. Astegunetan ez zen mezarik egoten. Gelara sartzeko jarraitu behar zituzten urratsak. Mojak zelakoak ziren. Zertara jolasten zuten. Arratsaldean berriz eskolara, eskulanak egitera.

4. Aldatze Ikastetxea Errepublika garaian

- **Erref:** AB-146/007
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika ezarri aurretik, nolako uniformeak erabiltzen zuten Aldatzen. Errepublikarekin batera, mojak seglar jantzen hasi ziren eta umeak ere kaleko erropekin joaten ziren. Gerra ostean, umeek berriz jantzi zuten uniformeak eta mojek abitua. Gerra ondorengo urteetan uniformeak zelakoa zen: modernoagoa...

5. Eibarko abadeak; dotrina eta aitortza

- **Erref:** AB-146/015
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:29:19. **Bukatu:** 00:32:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Dotrina on Juan Ibargutxik ematen zuen; bere etxean erosten ziren katezismo-liburuak, etab.. Gabriel Manterola eta on Juan Ibargutxi joaten ziren umeak konfesatzera. Umeak mantilarekin joaten ziren.</p>

6. Eugenio Urroz abadea

- **Erref:** AB-146/017
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Eibarko abadeak. On Eugenio Urroz ez zen dotrinara joaten. Dotrina euskaraz.</p>

7. Erlijioa Eibarren

- **Erref:** AB-146/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

Erlijioa Eibarren. Emakume gehienak elizatarrek; gizon batzuk, sozialistak eta ateoak. Eibartar asko, nahiz eta sozialistak izan, meztara joaten ziren.

8. Eibarko abadeak; kongregazioak

- **Erref:** AB-146/019
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:42:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

Isasiko kapilaua, On Gabriel Manterola. On Juan Ibargutxi abadea. Gabonetan eta Pazkoan, bisitan joaten ziren komentuetara. Agustinen komentuan, On Gabrielelek "La Tercera Orden de San Francisco" ezarri zuen. Orden hortako kideren bat hiltzen zenean, besteak eskapularioarekin joaten ziren elizkizunera. Horren inguruko anekdota bat kontatzen du.

9. Mercedes Kareaga

- **Erref:** AB-147/003

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

Mercedes Kareaga. Hitzaldiak ematen zituen eta gazte asko hurbiltzen ziren berak esandakoa entzutera.

10. Mercedes Kareaga eta Acción Católica

- **Erref:** AB-147/004
- **Iraupena:** 0:06:40. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

24 urterekin erabaki zuen moja sartzea. Mercedes Kareagak eragin handia izan zuen erabaki hartan. Acción Católica; Alianza de Jesús por María. Mercedes Kareagarekin ejerzizioak Loiolan. Mutilen inguruko kontuak, e.a. Frantziara nola joan zen. Madre Loiola.

11. Moja izateko eman behar ziren urratsak; Madre Loiola

- **Erref:** AB-147/005
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Moja izateko eman behar ziren pausoak azaltzen ditu Juanak. Basaurin eskolatxo bat zuten eta berak haur hezkuntzako irakasle izateko ikasketak egin zituen. Gero Igorren zabaldu zen etxe bat. Ume txikiendako euskaldun bat behar zuten eta bera joan zen. Madre Loiola Eibartik Igoerrera joan zen eta bere superiora izan zen. Madre Loiola irakasle izan zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com